

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektu bat martxan jarri ahal izateko, taldekideek gehitu ditzazketen baliabide guztiak ondo aprobetxatzea komeni da. Baliabide garrantzitsuenak aztertu behar ditugu, hau da, baliabide intelektualak. Gure bertuteak batuz, proiektua aurrera eraman eta arrakasta eduki ahalko dugu.



Hasteko, Iñigoren sare sozialei buruzko ezagutzak beharrezkoak izango dira, gure publizitatearen eta arreta zerbitzuaren zati handi bat bertan oinarrituko baita. Gainera, betidanik izan duen jendetasuna eta adeitasuna oso baliagarria izango da edozein arazo edo bestelako agertzean, jendearekin lasaitasunez hitz egiteko eta haiei konfidantza emateko.

Bestalde, Ikerrek teknologia berriak oso ondo menderatzen ditu eta horien inguruko hamaika ezagutza ditu. Gainera, “*Ping GPS*” aren funtzionamenduaren eta konponketen inguruko jakintza handiak ditu eta iraganen ikasitako trebetasun teknologiko askotarikoak oso baliagarriak izango zaizkio.

Produktuaren diseinua egokia izatea ezinbestekoa da eta pentsatu dugun bezalakoa atera ahal izateko diseinatzaile abil bat izatea oso garrantzitsua da. Leire disenatzaile oso trebea da, txiki txikitatik diseinuen arloa asko gustatu zaio eta urteak pasa ahala bere trebetasuna hobetzen joan da, azken urteotan diseinatzaile bikaina bihurtuz.

Beste enpresa edo erakundeekin aliantza sendoak egitea oso garrantzitsua da; horregatik, Jone-k harremanak egiteko eta akordioak finkatzeko duen ahalmena ezinbestekoa izango da. Izan ere, nahitaezkoak dira beste enpresekiko aliantzak gure proiektua aurrera atera ahal izateko, eta hitz jario egokia duen pertsona bat izango litzateke egokiena honetarako.



Enpresa batek aurrera egiteko eta etekinak izateko, ezinbestekoa da diruaren administrazioa ondo gidatzea. Kasu honetan, gure taldean Jon-ek esperientzia handia du diruaren administrazioan, izan ere, ekonomia arloan oso trebea da eta hainbat enpresa abian jarri ditu. Gainera, gurasoen babesa eta aholkularitza izan ditu beti eskuragarri enpresa bat aurrera eramateko garaian.



Bestalde, nahitaezkoa izango da aurrekontu monetario egoki bat egitea, bakoitzak diru kantitate jakin bat jarritz. Diru funts horren helburu nagusia proiektua gauzatu ahal izatea da, baina, hala ere, arazoren bat sortuko balitz, kantitate horrek arazoari aurre egiten lagunduko liguke.

Horretarako, proiektuaren bazkide bakoitzak 3000€ gehituko ditu aurrekontura, hau da, guztira 15000€ izango ditugu eskuragarri. Gure aurrezkietatik ateratako dirua izango da, hau da, ez diogu bankuari mailegurik eskatuko; izan ere, enpresak arrakastarik izango ez balu, ez dugu harekin zorretan ibili nahi.